

Juan Ignacio Erdozia Larraza “Axio” eusko gudaria oroitu dute Etxarri Aranatzan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/10/2023

Gaur 44 urte betetzen dira Guardia Zibilak tiroz erail zuenetik.

1979ko urriaren 8an, Donostian, indar errepresiboen eta ETA-ko militanteen artean enfrentamendu bat heman zen eta enfrentamendu honetan “Axio” eusko gudaria erail zuen Guardia Zibilak tiroz. Hori dela eta, JARKI antolakunde iraultzailea omenaldi bat antolatu zuen atzo sakanakoa oroitzeko, hamarnaka pertsona batuz. Omenaldian gudariari lore eskaintza egin diote eta aurrezku bat dantzatu ondoren eusko gudariak abestu dute.

UPN alderdi erregionalista omenaldia debekatzen eta jazartzen saiatu zen, izan ere, Fiskaltzari eskatu dio azter dezala deialdian delitu zantzurik dagoen. Aldi berean, erregionalistek eskatu dute "ordena publikoko indarrek ekitaldia kontrola dezatela, biktimak gutxiesteko, terrorismoa gorestek edo gorrotoko deliturik egon daitekeen jakiteko, baldin eta debekatuta ez badago". Era berean, Alderdi erregionalistak salatu du joan den astean ezezagunak udaletxeko balkoira igo eta Espainiako banderari su eman ziotela. UPNk sare sozialen bidez zabaldutako mezuan adierazi du, lehenik, "gorrotoa eta errespetu falta bizi diren lekuetan ezinezkoa da elkarbizitza, askatasuna eta demokrazia". Bestetik, "nafar eta espainiar guztiok ordezkatzeko gaituzten legeak eta sinboloak errespetatu behar dira". Azkenik, "ahalegin handiena eskatu dugu gertakari horiek argitzeko eta egileak identifikatzeko".

<https://eh.lahaine.org/juan-ignacio-erdozia-larraza-laxior>